

3. Pasabidea: Gipuzkoa Etorbide 30

Pasabide honetan dagoen semaforoa ez dago besteekin sinkronizatuta eta, ondorioz, funtzionamendu-denborak erraz alda daitezke, beste pasabide batekoen menpe egon beharrik gabe.

Pasabide honetan oinezkoek espaloi bien artean gurutzatu beharreko distantzia 9 m-koa da, beraz, oinezkoak pasatzeko gutxieneko funtzionamendu-denbora 18 segundo dira.

Oinezkoak pasatzeko egun argi berdez dagoen denbora 18 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 52 segundo.

Ibilgailuen kasuan, argi berdez pasatzeko duten denbora 43 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 24 segundo.

Hobekuntza moduan oinezkoentzako argi berdez egoteko denbora 20 segundo izatea proposatu da, nahiz eta kasu honetan oinezkoen joan-etorria ez da beste leku batzuetan bezain ugaria.

Ekipo hau argi hori keinukariz jartzen du gehienetan Udaltzaingoak.

Halaber pasatzeko denborak egokitzea proposatu da, bai ibilgailuentzat eta bai oinezkoentzat, lanegunetarako bat jarriz eta beste bat, ezberdina, jaiegun eta gauetarako.

